



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre de 2016**

## Herri Administrazioa eta Justizia

### EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO KARGU PUBLIKOEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK JASOTZEN ETA GARATZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DU

- Erantzukizun publikoko karguak bete dituzten pertsonak baimena eskatu beharko dute kargu publikoa utzi ondorengo bi urteetan enpresa pribatu batean lanpostu bat betetzeko.
- Dekretuak kargu publikoaren inguruko pertsonengana eta familiakoengana hedatzen du jarduera pribatuei buruzko kontuak Eusko Jaurlaritzari emateko betebeharra.
- Arau berriak jauzi kualitatibo bat ematen du gardentasunaren eta publizitate aktiboaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren web-orrian kargu publikoei buruzko informazio berri ugari argitaratzeko betebeharra jasotzen baitu, herritarrek kontsultatu ahal izan dezaten.
- Hemendik aurrera administrazioen eta bere kargu publikoen arteko harremana online bakarrik ezarriko da.

Gobernu Kontseiluak “*Kargu publikoen betebeharrei eta eskubideei buruzko dekretua*” onartu du gaur. Testu arautzaile berri honek euskal sektore publikoan kargu publikoak betetzen dituzten pertsonen gardentasuna, efikazia eta dedikazioa sakontzen ditu. Dekretu honen helburua da ahalik eta gehien zehaztea eta argitzea goi-karguak betetzen dituzten pertsonen jarduera publiko eta pribatuek jarraitu behar dituzten jokabideak, zerbitzu publikoa eman aurretik eta ematen duten bitartean, eta orain baita ondoren ere.

Dekretu hau izango da erreferentziako testua arlo honetan, bertan bateratu, bildu eta garatzen baitira hiru arau ezberdinetan jasotako eskubideak eta betebeharrak:

- ✓ [1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituena](#)
- ✓ [14/1988 Legea, urriaren 18koa, Goi-kargudunen Lansariei buruzkoa](#)
- ✓ [10/2012 Legea, maiatzaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea erreformatzekoa, biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidearen arauketa berria ezartzen duena](#)

### JARDUERA AITORPENA

Dekretuaren berrikuntzetako bat da gehitu egin direla kargu publikoek **Jarduera Aitorpenari** dagokionez izango dituzten betebeharrak. Hemendik aurrera, langile kargu publikodunek beren jarduera pribatuei buruzko informazioa eman behar dutenean, epe zabalagoari eta egoera eta pertsona gehiagori buruzko informazioa eman beharko dute.

- ✓ **Epeak.** Kargu publikodunek izendatu ondorengo hilabete 1eko epean aurkeztu beharko dute Pertsonalaren Erregistroko Zerbitzuan izendatu aurreko bi urteetako jarduera publiko eta pribatuen aitortpena. Gainera, interes-gatazkarik ez izatearen aitortpena aurkeztu beharko dute, beren familiakoen edo hirugarren pertsonen jarduera pribatuei dagokienez. Ondoren, izaten diren jarduera-aldaketa guztien berri ere eman beharko dute, eta kasu honetan ere egoera aldatzen denetik hilabete bateko epea izango dute. **(17. art.)**
  
- ✓ **Bi urte ondoren.** Kargu publikodunaren jarduera pribatuei buruzko betebeharrak kargua utzi ondorengo bi urteetara luzatuko dira. Dekretuak ezartzen du kargu publikoa bete duen pertsonak ordutik aurrera ezin izango duela lan-harremanik edo merkataritza-harremanik hasi kargu publiko gisa garatu duen jarduerarekin harreman zuzena duten enpresa, sozietate edo izaera pribatuko beste edozein erakunderekin. Sektore pribatuarentzat lanean hasi aurretik, beraz, Eusko Jaurlaritzari baimena eskatu beharko dio lan-eskaintza bat jaso ondorengo bi egun balioduneko epean. Eskaezarekin batera eskaintzaren kopia bat helaraziko da, eta bertan identifikatuko dira eskaintza egiten duen enpresa, kontratua, iraupena, kategoria profesionala, eginkizunak eta ordainsari finkoak. Alegazioak eskatzeko edo ebazteko 10 egun balioduneko epea izango da. Erabakia gehienez ere hilabete bateko epean emango da, eta ezezkoa izango balitz, Eusko Jaurlaritzak pertsonari berari eta eskaintza egiten duen erakundeari jakinarazi beharko dio. **(35 eta 36 art.)**  
 Nahitaezko eszedentzia egoeran, lanpostua gordeta, dauden pertsonak, kargu publikoa betetzen duten denboran ez dute parte hartuko lanpostua gorde dien enpresari edo erakundeari dagozkion gaietan edo erabakietan. Gainera, kargua utzi ondoren eta enpresara itzuli aurretik, ez esku hartzeko edo inhibitzeko betebeharra bete dutela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. **(37. art.)**
  
- ✓ **Irakaskuntza.** Izendatu aurretik irakaskuntzako jardueraren bat hitzemanda dutenek, erakundeari, ordutegiei, lekuari, ordainsariari, eta abarri buruzko xehetasunak jakinarazi beharko dituzte alde aurreko bateragarritasun-baimenerako. Bestalde, irakaskuntzako dedikazioa berariaz jasoko da Gobernu Kontseiluaren izendapenean. **(18. art.)**  
 Kongresu, jardunaldi, mintegi, ikastaro eta hitzaldietako parte-hartzea, ordaindutakoa baina lan-harreman edo zerbitzuak emateko kontratu baten ondorio ez dena, noizbehinkako jardueratzat hartuko da, eta urtean 60 irakastordu gainditzen ez baditu bakarrik baimenduko da. **(21. art.)**

## GARDENTASUNA ETA PUBLIZITATE AKTIBOA

Dekretu honek, gainera, jauzi kualitatiboa ematen du gardentasunaren eta publizitate aktiboaren arloan **(51. art.)**. Eta hemendik aurrera, beraz, erantzukizun publikoko karguak betetzen dituzten pertsonak argi, egituratuta, ulertzeko moduan eta berrerabiltzeko formatuan, jarriko dute Eusko

Jaurlaritzaren web atari ofizialeko “Gardena” atalean, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), honako informazio hau:

- ✓ **Profila eta ibilbidea.** Kargu publiko bat hartzen duen pertsona batek 15 egun izango ditu web-orrian honako informazio hau jartzeko: informazio akademikoa, edozein administratziotako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratudun langile finkoa izatea, arlo publikoan edo izendapen politikoko lanpostuetan egindako ibilbidea, arlo pribatuko lan-esperientzia, nahitaezko eszedentzia egoeran dagoen, lanpostua gordeta, erakunde pribatu batean eta kalte-ordainen bat jaso duen inoiz kargu publiko bat utzi izanagatik.
- ✓ **Betebeharren betetze-maila.** Eta, gainera, sei hilabetez behin txosten bat igorriko da Legebiltzarrerara, eta bertan jasoko dira kargu publikodun bakoitzak egindako arau-haustea eta eragin dituen zehapenak.
- ✓ **Bateragarritasun-baimena.** Kargu publikoa utzi ondorengo bi urteetan jarduera pribatuetan aritzeko nahitaezko baimen hau lortu duten pertsona guztien zerrenda argitaratuko da.
- ✓ **Ondasunak eta ondare-eskubideak.** PFEZren aitortpeneko zerga-oinarriak argitaratuko dira eta, hala badagokio, kargu publikodun guztien ondare-aitortpena.
- ✓ **Abstentzia edo inhibizioa.** Interes-gatazka konprometitu dezaketen gaietan abstenitu edo inhibitu diren kargu publikodunen zerrenda osoa jarriko da, bai eta horretarako izandako arrazoia ere.
- ✓ **Kargu-uzte edo kaleratzea.** Online egongo da eskuragarri honako kargu publikodun hauen zerrenda: zerbitzua emateko kontratua amaitu delako kalte-ordaina jaso dutenena, eguna eta zenbatekoa zehaztuta; kargua utzi ondorengo bi urteetan jarduera pribatuetan aritzeko bateragarritasun-baimena ukatu zaielako konpentsazio-ordaina jaso dutenen zerrenda; kargu publikoa amaitzean dagokion kalte-ordainari uko egin dioten eta biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten pertsonen zerrenda.
- ✓ **Lan-kontratupeko langile publikoak.** Kargu publikodunek izenpetutako goi-zuzendaritzako lan-kontratuak ere argitaratuko dira.

## HARREMANA ONLINE BAKARRIK

Gaur onartu den dekretuak behin betiko bultzada ematen dio administrazioen eta kargu publikodunen arteko harremanetan papera baztertu eta baliabide

elektronikoak bakarrik erabiltzeari, eta **hemendik aurrera, beraz, harreman hori online bakarrik ezarriko da (50. art.)**

Kargu publikodunek baimena eman ahal izango dute Pertsonalaren Erregistroko Zerbitzuak beste administrazio batzuen, esate baterako, zerga-administrazioaren edo Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen, informaziora sarbidea izan dezan, eta hemendik aurrera, beraz, ez da beharrezkoa izango hasieran eta urtero errenta-aitorpena eta ondare-aitorpena aurkeztea. Baimena kargua utzi ondorengo bi urteetara arte izango da baliokoa.

Prozedura elektronikoa bat ezarriko da goi-karguek Jaurlaritzaren web-orriaren bitartez ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) egin ditzaten tramite eta adierazpen guztiak: aitortpenak, bateragarritasun-eskaerak, abstentzio edo inhibizio jakinarazpena, Kode Etikorekiko eta Jokabide Kodearekiko atxikipena, etab.

## **APLIKAZIO ESPARRUA**

Kargu Publikoen Katalogoan jasota dauden pertsona guztiei aplikatuko zaie. Katalogoa Pertsonalaren Erregistroko Zerbitzuak kudeatuko du, beti eguneratuta egongo da eta honako hauen izenak jasoko ditu.

- ✓ Gobernu kideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunak.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko behin-behineko langileak, zuzendari mailakoak edo goragokoak.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten zuzendariak.
- ✓ Arartekoa eta Arartekoaren ondokoa.
- ✓ Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak eta idazkari nagusia.
- ✓ Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko eta Lan Harremanen Kontseiluko buruak eta idazkari nagusiak.
- ✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria
- ✓ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko eta Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko kideak.
- ✓ Autonomia Erkidegoaren edo Eusko Legebiltzarraren zerbitzura dagoen eta kargu publikoari parekatuta dagoen beste edozein pertsona.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU “GIPUZKOAKO INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALA”REN IZENA ALDATZEA**

Eusko Jaurlaritzak gaur baimendu du “*Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala*”ren izena aldatzea, eta horren ordez “*Gipuzkoako Industria Ingeniaritzako Gradudunen eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta Peritu Industrialen Elkargo Ofiziala*” deitzea.

Aldaketa eragin du lizentziaturak ordezkatu dituzten graduako titulazio berrietara egokitu beharrak, Bolonia prozesura moldatzeko, bai eta beren izenetan graduatuaren titulazioa jadanik sartu duten beste elkargo eta kontseilu batzuen inplikazioak ere. Zuzenketa, bestalde, jadanik sartuta dago Elkargoak berak Herri Administrazio eta Justizia Sailari estatutuak aldatzeko aurkeztu zion eskaeran ere.

“*Euskal Autonomia Erkidegoko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Kontseilua*”ren eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren aldeko txostenak aurkeztuta eta eskatutako zuzenketak eginda, Gobernu Kontseiluak adierazi du justifikatuta dagoela elkargoak sustatutako eskaera eta dekretu bidez onartu du izen-aldaketa.

Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

**PROTOKOLOA,  
HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN  
BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA  
SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN  
JARDUTEKOA,  
ETA  
HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU  
HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA  
KOORDINAZIORAKOA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak protokolo berri baten berri eman dio Gobernu Kontseiluari: Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko Protokoloa.

Hezkuntza-esparruaren eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioa xede duen protokolo bat da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera eta beste erakunde, zerbitzu espezializatu nahiz profesional batzuekin elkarlanean bultzatu du lan-tresna hau. Beharrezko gertatzen da babesgabetasun egoeraren bat, tratu txarrak, abusua edo sexu-jazarpena (fisikoa nahiz psikologikoa) pairatzen ari diren, pairatu dituzten edo pairatzeko arriskuan egon daitezkeen adin txikikoekin diharduten eragileen arteko jarduketak koordinatzea. Profesionalki adingabeekin ari den pertsona orok egoera horiek antzemateko. Beharrezko gertatzen da adingabeekin profesionalki esku hartzen duten pertsona guztiek egoera horiek antzemateko eta modurik egoki, bizkor eta eraginkorrean jarduteko jarraibideak izatea, horrela lortuko baitute haien osotasuna eta duintasuna bete-betean babestea eta defendatzea.

Eskubide horiek babesteko ezinbestekoa da jarduketak koordinatzea, eraso gertatu denean adingabeari sortutako eragina arintzeko, baina baita, aurreko fase batean, arriskuak garaiz prebenitu eta detektatzeko ere. Gainera, geroztiko jarraipena ere profesionalak lantzen duten funtsezko elementua da.

Bistan da haur eta nerabeen eskubideak urratzen dituzten egoera horiek ezin direla eta ez direla alde batera utzi behar, ezta justifikatu ere. Haurrak eta nerabeak biktima dituzten egoerak oso konplexuak izan ohi dira, eta kontu handiz ulertu eta aurre egin beharra dago. Gisa horretako gertaeren aurrean, eskolak erantzukizun legala ez ezik, emozionala eta etikoa ere badu, eta ezin die berak bakarrik aurre egin.

Eskolak rol bat bete beharra dauka, eta erakunde eta profesional adituen sare batean artikulatuta egin dezake, familiari egoera horietan lagun egiteko. Sarean

lan egitea ezinbestekoa da prebentzio, detekzio eta euspen soziokomunitarioan lan egin dezakeen sistema bat osatzeko.

**Protokoloaren helburuak honako hauek dira:**

- Adin txikikoen babesgabetasun egoerak, tratu txarrak, sexu-jazarpena edo abusuak eskolatik eta garaiz antzemateko eta prebenitzeko jarraibideak eskaintzea.
- Era honetako egoeren aurrean eskolaren esparrutik nola jokatu azalduko duten jarraibideak adieraztea.
- Hezkuntza-zerbitzuen eta esku hartzen duten gainerako eragileen arteko koordinazio-prozedurak ezartzea.
- Erakunde guztien jarduketan arteko koherentzia sustatzea

**Protokoloak bere baitan hartzen ditu:**

- Haur eta nerabeen babesgabetasun egoeren definizioa, eta eskola-eremuan antzemandako tratu txar, sexu-jazarpen edo abusu egoeren definizioa.
- Jarduteko printzipio nagusiak.
- Hezkuntza-testuiguruko jarduketa prebentiboak
- Ikastetxearen jardunbidea, babesgabetasun egoeren aurrean.
- Tratu txar, sexu-jazarpen eta gehiegikeria kasuen aurreko jardunbidea.
- Hezkuntza esparruaren eta adin txikikoen babesean diharduten eragile edo zerbitzuen arteko koordinazioa eta kolaborazioa (Gizarte Zerbitzuak, Osasun Zerbitzuak, Ertzaintza, Fiskaltza eta Epaitegia).
- Koordinazio-protokoloaren jarraipena.

Protokolo hau egiten honako erakunde eta eragile hauek hartu dute parte:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
- Enplegu eta Gizarte Politiken Saila
- Segurtasun Saila
- Osasun Saila
- Arabako Gizarte Zerbitzuak
- Bizkaiko Gizarte Zerbitzuak
- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak
- Gasteizko oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Bilboko oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Donostiako oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- EUDELeko Gizarte Zerbitzuen ordezkaritza
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia



## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **8,4 MILIOI IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKI ZERBITZUA KONTRATATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 8.416.504,9 euro bideratzea ikastetxe publikoetan kudeaketa zuzena duten jantokietarako jatorduak prestatu, lehengaiak eskuratu, hauek garraiatu nahiz bestelako zerbitzu osagarriak (jantokiko monitoreak barne) eskainiko dituen zerbitzua kontratatzeko.

Aipaturiko kontratazioa Donostialdean, Oarsoaldean eta Bidasoan dauden 17 ikastetxe publikotako 19 jantokitan zerbitzua emateko izango da. 2016-2017 ikasturte honetan 5.430 ikaslek bazkaltzen dute egunero jantoki horietan. Litzitazioa aterako diren 19 jantoki horien artean, 5 jantokitan otordua ikastetxeko sukaldean bertan prestatzen da (1.822 jatunentzat), eta gainerako 14 jantokitan aldiz otordu garraiatua eskaintzen da (3.608 jatunentzat).

Kontratuaren iraupena 2017-2018 ikasturtearen amaiera artekoa izango da (2018ko ekaina), 2019ko ekainaren 30etik aurrera joango ez den luzapen aukerarekin. 2016-2017 ikasturte honetan 92.000 ikasle inguruk erabiltzen dute Euskadiko ikastetxe publikoetan jantoki zerbitzua egunero.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **7,9 MILIOI ESKOLA GARRAIOKO 79 IBILBIDEREN KONTRATAZIORAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du 7.912.624,5 euro bideratzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko ikastetxe publikoetarako eskola-garraioren zerbitzua kontratatzeko.

Zehazki, Euskadin egun dauden 537 ibilbideen arteko 79 aterako dira lizitazioan: 37 ibilbide Araban, 6 Gipuzkoan eta 36 Bizkaian, orotara egunero 3.000 ikasle inguru garraiatzen direlarik horietan. Kontratu honen iraupena 2018-2019 ikasturte amaiera artekoa izango da (2019ko ekaina), ikasturte bat gehiago luzatzeko aukerarekin.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak urtero ateratzen ditu lizitaziora indar-aldia amaitu zaien eskola-garraioko ibilbideak, bai eta sor behar berriak direla-eta sor daitezkeen ibilbide berriak ere.

2016-2017 ikasturte honetan unibertsitatez besteko hezkuntza mailetan ari diren 24.000 ikasle inguru garraiatzen dira egunero Euskadiko 260 ikastetxe publikotara, Eusko Jaurlaritzak kontratatutako zerbitzu hauen bidez.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **ELGOIBARKO SIGMA ENPRESAREN ARTXIBOA EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOARI LAGATZEA**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzaren eta Elgoibarko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bidez, Sigma (Estarta y Ecenarro SA) enpresa historikoaren artxibo-funtsa Euskadiko Artxibo Historikoari lagako zaio.

Sigma enpresaren aipaturiko funts horrek interes nabarmena du, makina-erremintaren arloan XX. mendearen hasieratik Euskadin aitzindari izan den enpresa baten historia jasotzen baitu. Era beran, enpresa hori gerra ostean nahiz Francoren diktadura garaian ere punta-puntakoa izan zen estatu mailan eta nazioartean, josteko makinaren fabrikazioan.

Lagako den artxibo-funtsa zabala eta guztiz osoa da (4.000 kaxa inguru, ehunka plano, marrazkiak...), eta enpresaren jardueraren 80 urteko historia islatzen du, 1914an ibilbideari ekin zionetik 1995ean itxi zen arte. Gainera, hauxe izango da Euskadiko Artxibo Historikoak lagata hartuko duen lehen enpresa-funtsa. Horrela bada, eredu izan daiteke Euskadiko beste enpresa batzuentzat ere, edozein sektoretakoak direlarik ere, artxiboan laga ditzaten euren dokumentu-funts historikoak.

Gaur egun, Elgoibarko Udala da Sigma enpresaren artxibo-funtsaren jabe, eta udalaren lokaletan dago gordeta. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak kudeatzen duen Euskadiko Artxibo Historikoak bere funtsen artean Elgoibarko funts hau izateko interesa erakutsi du, gure historia industrialaren zati inportante bat jasotzen baitu. Artxibo Historikoan kontserbatuko dira horrela, eta ikertzaile nahiz adituek kontsultatu ahal izateko moduan egongo da horrela.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **315.000 EURO KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIETAN I+G+b PROIEKTUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 2016. Urtean Kultura eta Sormen Industrien (KSI) sektoreko I+G+b proiektuetarako diru-laguntzak ematen dituen Agindua.

Deialdi honek, 315.000 euroko diru-kopurua du, eta bereziki gisa honetako proiektuak lagunduko ditu diruz:

- Produktuak, zerbitzuak eta merkatua berritzeko proiektuak, merkatu globaletarako moduko eskaintza taxutzeko helburua dutenak.
- Bideragarritasun-azterketako edo prototipoko fasean dauden I+G+B proiektu traktoreak.
- Sektore bateko ikerketa-lerro estrategikoak identifikatzera eta garatzera bideratutako proiektuak.
- KSIra teknologia transferitzeko proiektuak, eta merkatu globaletarako moduko produktu eta zerbitzu berritzaileak taxutzeko helburua dutenak.
- Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean definitutako Euskadiko espezializazio adimentsurako beste alorrekin lotutako I+G+B proiektu traktoreetan kultura eta sormen industrien parte hartzea sustatzen dutenak.
- Sektore horietan negozio-eredu berriak garatzeari buruzko proiektuak.

Jarduera-proiektu horiek 2016. urtean gauzatu beharko dira eta azpisektore hauetako batekin lotuak izan beharko dute: arkitektura, diseinua, moda, bideo-jokoak, ikus-entzunezkoa, musika, arte eszenikoak, ikusizkoa arteak, esku-langintza, kultura-ondarea, hizkuntzaren industriak, argitalpenak, publizitatea eta marketina, eta gastronomia (aurreko azpisektoreren batekin lotua).

Europar Batasuneko estatu kideren batean egoitza duten enpresek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan, baldin eta haien jarduera nagusia aipaturiko azpisektoreren bati badagokio; eta beti ere, diruz lagun daitezkeen jarduerak zuzenean Euskadin gauzatzen badira.

Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak, Kultura eta Sormen Industriak identifikatu ditu Euskadiren Espezializazio Adimentsurako Estrategia barruko aukera-alor gisa, EAEko I+G+B politikei dagokienez. Horregatik Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak I+G+B proiektuei laguntzeko deialdi hau antolatu du, kultura eta sormen industrien merkatuan, produktuetan eta zerbitzuetan berrikuntza eragingo duten proiektuak sustatzearen

Eskaerak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, Agindua EHAA n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

**GOBERNU KONTSEILUAK PRESAKOTZAT JO DU "EL ALISAL AUZOKO (SOPUERTA) ITURBURUKO UREN BILKETA DESAGERRARAZTEA" PROIEKTUAREN ONDORIOZ KALTETUTAKO ONDASUNEN OKUPAZIOA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ALDETIK**

Eusko Gobernu Kontseiluak presakotzat jo du "El Alisal auzoko (Sopuerta) iturburuko uren bilketa desagerraraztea" proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren eta horretarako eginiko espedientean jasotako zerrendan zehaztuta eta izendatuta dauden ondasunen eta eskubideen okupazioa, nahitaezko desjabetze gisa.

**GOBERNU KONTSEILUAK PRESAKOTZAT JO DU "SUSTATXAKO (BERANGO) BILTEGIAN ITURBURUTIK DATORREN URAREN BILKETA DESAGERRARAZTEA" PROIEKTUAREN ONDORIOZ KALTETUTAKO ONDASUNEN OKUPAZIOA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ALDETIK**

Eusko Gobernu Kontseiluak presakotzat jo du "Sustatxako (Berango) biltegian iturburutik datorren uraren bilketa desagerraraztea" proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren eta horretarako eginiko espedientean jasotako zerrendan zehaztuta eta izendatuta dauden ondasunen eta eskubideen okupazioa, nahitaezko desjabetze gisa.

## Administración Pública y Justicia

### EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DECRETO QUE RECOGE Y DESARROLLA LAS OBLIGACIONES Y LOS DERECHOS DEL PERSONAL CARGO PÚBLICO DE EUSKADI

- Las personas que ocupen puestos de responsabilidad pública, tendrán que solicitar autorización para ocupar un puesto de trabajo en la empresa privada durante los dos años posteriores a su cese.
- El decreto extiende a los familiares y personas cercanas al cargo público la información de la que debe dar cuenta.
- La nueva norma supone un salto cualitativo en materia de transparencia y publicidad activa, al incluir la obligación de publicar en la página web del Gobierno Vasco numerosa información nueva sobre su personal cargo público para consulta de la ciudadanía.
- A partir de ahora, la relación entre las administraciones y sus cargos públicos será única y exclusivamente online.

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el “*Decreto sobre obligaciones y derechos del personal cargo público*”, un nuevo texto normativo que profundiza en la necesidad de garantizar la transparencia, eficacia y dedicación de las personas que ocupan cargos públicos en el sector público vasco. El objetivo de este decreto es especificar y clarificar lo más posible las conductas que han de regir las actividades, privadas y públicas, de las personas que ocupan cargos públicos antes, durante, y ahora también después, de la prestación del servicio público.

Este decreto será el nuevo texto de referencia en la materia, ya que refunde, aglutina y desarrolla los derechos y obligaciones contemplados en tres normas diferentes:

- ✓ [Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos](#)
- ✓ [Ley 14/1988, de 28 de octubre, de Retribuciones de Altos Cargos](#)
- ✓ [Ley 10/2012 de 30 de mayo, de reforma de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, por la que se establece una nueva regulación del derecho a pensión vitalicia](#)

### DECLARACIÓN DE ACTIVIDADES

Entre las principales novedades que incluye el decreto, está la ampliación de las obligaciones que a partir de ahora tendrá el personal cargo público en relación con su “**Declaración de Actividades**”. Se extiende tanto el plazo como el número de personas y circunstancias, sobre las que el personal cargo público deberá dar cuenta de sus actividades privadas:

- ✓ **Plazos.** El personal cargo público deberá presentar, en el plazo de 1 mes desde su nombramiento, ante el “Servicio de Registro de Personal”, su

declaración de actividades públicas y privadas de los dos años anteriores a ser nombrado. Además, deberá presentar una declaración de inexistencia de conflicto de intereses en relación a las actividades privadas de sus familiares o terceras personas. Con posterioridad, deberá también comunicar cualquier cambio de actividad que se produzca, con el plazo también de un mes desde la variación de su situación. **(Art.17)**

- ✓ **Dos años después.** La obligación de declarar sobre las actividades privadas del personal cargo público, se extenderán durante dos años después del cese. A partir de entonces, el decreto establece que las personas que han ejercido el cargo público, no podrán iniciar relación laboral o mercantil con empresas, sociedades o cualquier otra entidad de naturaleza privada que tenga relación directa con la actividad que ha desarrollado como personal cargo público.

Así, antes de trabajar para el sector privado, se deberá solicitar autorización del Gobierno Vasco en el plazo de dos días hábiles tras la recepción de una oferta de trabajo. La solicitud estará acompañada de copia de la oferta, donde se identificará la empresa ofertante, tipo de contrato, duración, la categoría profesional, funciones a realizar y retribuciones fijas. El Gobierno vasco tendrá un plazo de 10 días hábiles para resolver o para solicitar alegaciones. La resolución, en ningún caso podrá exceder el mes y en el caso de que fuera negativa, el Gobierno Vasco advertirá a la persona pero también a la entidad ofertante. **(Art. 35 y 36)**

En el caso de las personas que estén en situación de excedencia forzosa con reserva de puesto, estarán obligadas durante todo el tiempo que ocupen el cargo público, a abstenerse en cualquier conocimiento, intervención o decisión de los asuntos que afecten a la empresa o entidad en la que tiene reserva de puesto. Además, tras su cese y antes de volver a la empresa, deberán presentar declaración responsable de haber cumplido con su obligación de abstención o inhibición. **(Art. 37)**

- ✓ **Docencia.** Quienes antes de su nombramiento tengan comprometida alguna actividad docente, deberán comunicar los detalles de entidad, horarios, lugar, retribución, etc. para su previa autorización de compatibilidad. Además, la dedicación a la docencia constará explícitamente en el nombramiento por parte del Consejo de Gobierno. **(Art. 18)**

Por otro lado, la participación en congresos, jornadas, seminarios, cursos y conferencias, retribuidas pero sin relación de trabajo o prestación de servicios, se considerará ocasional y por tanto se autorizará siempre y cuando no supere las 60 horas lectivas al año. **(Art. 21)**

## TRANSPARENCIA Y PUBLICIDAD ACTIVA

Además, este decreto supone un salto cualitativo en materia de transparencia y publicidad activa **(Art 51)**. Así, a partir de ahora, las personas que ocupen cargos de responsabilidad pública tendrán que, de manera clara, estructurada, comprensible y en formato reutilizable, colgar en el área de “Gardena” del

portal web oficial del Gobierno Vasco, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), la siguiente información:

- ✓ **Perfil y trayectoria.** Quién acceda a un cargo público tendrá un plazo de 15 días para colgar en la página web toda la información relativa a: su formación académica, su condición de personal funcionario, estatutario o laboral fijo de cualquier administración, su trayectoria en el ámbito de lo público o en puestos de designación política, su experiencia profesional en el ámbito de lo privado, si se encuentra en situación de excedencia forzosa con reserva de puesto de trabajo en cualquier entidad privada y si ha cobrado en alguna ocasión indemnización con motivo de un cese como cargo público.
  
- ✓ **Grado de cumplimiento de las obligaciones.** Cada seis meses se enviará un informe al Parlamento, en el que se incluirán las infracciones cometidas por cada persona cargo público así como las sanciones que hayan derivado de las mismas.
  
- ✓ **Autorización de compatibilidad.** Se publicará el listado de todas las personas que hayan obtenido esta autorización obligatoria para el desempeño de actividades privadas durante los dos años posteriores a la finalización de servicio como cargo público.
  
- ✓ **Bienes y derechos patrimoniales.** Se publicarán las Bases Imponibles de la declaración de IRPF y, en su caso, de la declaración de Patrimonio de todo el personal cargo público.
  
- ✓ **Abstención o Inhibición.** Se colgará la relación completa del personal cargo público que haya notificado su abstención o inhibición en asuntos que pudieran comprometer conflicto de intereses, así como el motivo de la misma.
  
- ✓ **Cese o despido.** Estará disponible online la relación del personal cargo público que: haya percibido indemnización por finalización de la prestación del servicio, así como la fecha y su cuantía, la relación de quienes hayan percibido indemnizaciones compensatorias por denegación de autorización de compatibilidad para la realización de actividades privadas durante los dos años posteriores al cese del cargo, el listado de las personas que hayan renunciado a la indemnización correspondiente a la finalización de servicio como cargo público y quienes tengan reconocido el derecho de una pensión vitalicia.
  
- ✓ **Personal público con contrato laboral.** Se publicarán también los contratos laborales de alta dirección suscritos por personal cargo público.



## RELACIÓN SÓLO ONLINE

El decreto aprobado hoy es también el impulso definitivo a la eliminación del papel y el uso de medios electrónicos en la relación entre las administraciones y su personal cargo público, ya que **a partir de ahora, la relación pasa a ser única y exclusivamente online (Art. 50)**

Las y los cargos públicos podrán dar su consentimiento para que el “Servicio de Registro de Personal” pueda acceder a la información que obre en poder de otras administraciones, tales como, la tributaria o entidades gestoras de la Seguridad Social, de tal forma que, en su caso, ya no será necesario presentar, tanto al inicio, como anualmente, una copia de la declaración de la renta y de patrimonio. El consentimiento de acceso a esta información será válido hasta dos años después de haber dejado el cargo.

Además, se habilitará un procedimiento electrónico para que las y los cargos públicos realicen a través de la página web del Gobierno, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), todos sus trámites: las declaraciones, solicitudes de compatibilidad, comunicaciones de abstención o inhibición, adhesiones al Código de Ética y de Conducta, etc.

## ÁMBITO DE APLICACIÓN

Este decreto se aplicará a todas las personas incluidas en el “Catálogo de Cargos Públicos”, un catálogo que gestionará el “Servicio de Registro de Personal” y que deberá estar permanentemente actualizado con los nombres de:

- ✓ Personas que integran el Gobierno, las y los cargos públicos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- ✓ Personal eventual de la Comunidad Autónoma de Euskadi con rango igual o superior a director o directora.
- ✓ Personal directivo perteneciente al sector público de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- ✓ La persona que ostente la condición de Ararteko y la de adjunto o adjunta.
- ✓ Las personas integrantes del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y a la persona titular de su Secretaría General.
- ✓ Las personas titulares de la Presidencia y Secretaría General del Consejo Económico y Social Vasco y del Consejo de Relaciones Laborales.
- ✓ La persona titular de la Dirección de la Agencia Vasca de Protección de Datos
- ✓ Las personas integrantes de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- ✓ A cualquier otra persona al servicio de la Comunidad Autónoma o del Parlamento Vasco que sea asimilada a personal cargo público.

## Administración Pública y Justicia

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL CAMBIO DE DENOMINACIÓN DEL “COLEGIO OFICIAL DE PERITOS E INGENIEROS TÉCNICOS INDUSTRIALES DE GIPUZKOA”**

El Gobierno Vasco ha dado hoy luz verde al cambio de nombre del “*Colegio Oficial de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales de Gipuzkoa*” por el de “*Colegio Oficial de Graduados en Ingeniería de la Rama Industrial, Ingenieros Técnicos Industriales y Peritos Industriales de Gipuzkoa*”.

El cambio, motivado por la necesidad de adecuación a las nuevas titulaciones de grado que sustituyen a las licenciaturas en adaptación al proceso de Bolonia, responde también a la implicación de otros colegios y consejos que ya han incluido en sus denominaciones la titulación de graduado y graduada. La corrección, además, está incluida en la solicitud que el propio Colegio presentó al Departamento de Administración Pública y Justicia para la modificación de sus estatutos.

Presentados los informes favorables del “*Consejo de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales del País Vasco*” y del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, y una vez realizadas las correcciones requeridas, el Consejo de Gobierno, considera justificada la solicitud promovida por el colegio y aprueba, mediante decreto, el cambio de denominación.

Este decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

**PROTOCOLO DE PREVENCIÓN Y ACTUACIÓN  
EN EL ÁMBITO EDUCATIVO ANTE SITUACIONES DE POSIBLE  
DESPROTECCIÓN Y MALTRATO, ACOSO Y ABUSO SEXUAL INFANTIL Y  
ADOLESCENTE  
Y  
DE COLABORACIÓN Y COORDINACIÓN  
ENTRE EL ÁMBITO EDUCATIVO Y LOS AGENTES QUE INTERVIENEN EN  
LA PROTECCIÓN DE LA PERSONA MENOR DE EDAD**

La Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura ha informado al Consejo de Gobierno del nuevo Protocolo de Prevención y Actuación en el ámbito educativo ante situaciones de posible desprotección y maltrato, abuso y acoso sexual infantil y adolescente.

Un Protocolo que busca la colaboración y coordinación entre el ámbito educativo y los agentes que intervienen en la protección de los menores de edad.

El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura ha impulsado esta herramienta de trabajo en colaboración con otros Departamentos del Gobierno Vasco, así como con otras instituciones y servicios especializados y profesionales. Es necesario coordinar actuaciones entre los distintos agentes que intervienen con personas menores de edad que estén sufriendo, hayan sufrido o puedan estar en riesgo de sufrir desprotección, maltrato, abuso o acoso sexual (sea físico o psicológico). Todas las personas que intervengan profesionalmente con menores dispondrán de pautas para detectar estas situaciones y para actuar de la forma más adecuada, rápida y eficaz en la protección y defensa de su plena integridad y dignidad.

La protección de estos derechos exige coordinar las actuaciones para aliviar el impacto ocasionado al menor cuando la situación de agresión ya se ha producido, pero también, en una fase anterior, prevenir y detectar precozmente los riesgos. Además, también el seguimiento posterior es uno de los elementos fundamentales que abordan los profesionales.

Es evidente que estas situaciones de vulneración de los derechos de niños, niñas y adolescentes, no pueden ni deben ser ignoradas ni justificadas. La comprensión y el abordaje de las situaciones en las que los niños, niñas y adolescentes son víctimas son de una gran complejidad. Ante estos hechos, la escuela tiene una responsabilidad no solo legal, sino también emocional y ética, que no puede afrontar sola.

La escuela tiene un rol que cumplir y puede hacerlo en articulación con una red de instituciones y profesionales especializados, que acompañen a la familia en estas circunstancias. El trabajo en red es imprescindible para conformar un

sistema que pueda trabajar en prevención, detección y contención socio-comunitaria.

**Los objetivos del protocolo son:**

- Ofrecer pautas para prevenir y detectar precozmente desde la escuela los riesgos y situaciones de desprotección, maltrato, acoso y/o abuso sexual a las personas menores.
- Indicar pautas sobre cómo proceder desde el ámbito escolar ante este tipo de situaciones.
- Establecer procedimientos de coordinación entre los Servicios Educativos y el resto de agentes intervinientes.
- Promover la coherencia de las actuaciones de todas las instituciones.

**El protocolo incluye:**

- Definición y características de las situaciones de desprotección infantil/adolescente y de las situaciones de maltrato, acoso y/o abuso sexual detectadas en el ámbito escolar.
- Principios generales de actuación
- Actuaciones preventivas en el contexto educativo
- Actuación del centro educativo ante situaciones de desprotección
- Actuación ante situaciones de maltrato, acoso y/o abuso sexual en el ámbito escolar
- Coordinación y colaboración entre el ámbito educativo y los agentes/servicios que intervienen en la protección de la persona menor de edad (Servicios Sociales, Servicios Sanitarios, Ertzaintza, Fiscalía y Juzgado).
- Seguimiento del protocolo de coordinación.

En la elaboración de este protocolo han tomado parte las instituciones, organismos y/o agentes siguientes:

Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura  
Departamento de Empleo y Políticas Sociales  
Departamento de Seguridad  
Departamento de Salud  
Servicios Sociales Territoriales de Araba  
Servicios Sociales Territoriales de Bizkaia  
Servicios Sociales Territoriales de Gipuzkoa  
Servicios Sociales de base de Vitoria-Gasteiz  
Servicios Sociales de base de Bilbao  
Servicios Sociales de base de Donostia-San Sebastián  
Representante de EUDEL de Servicios Sociales  
Fiscalía Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **8,4 MILLONES PARA EL SERVICIO DE COMEDORES DE CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, destinar 8.416.504,9 euros para la contratación del servicio de elaboración de comidas, entrega de materias primas, transporte de éstas y prestaciones complementarias (incluidos monitores y monitoras) para los comedores de gestión directa en los centros educativos públicos.

La citada contratación estará destinada a dar servicio a 17 centros escolares que imparten Educación Infantil, Primaria o Secundaria ubicadas en San Sebastián, Oarsoaldea y Bidasoa, y que cuentan con 19 comedores en sus instalaciones. Un total de 5.430 alumnos y alumnas comen diariamente en ellos durante este curso 2016-2017. De los 19 comedores cuyo servicio saldrá a licitación, 5 son de comida elaborada *in situ*, es decir, en la cocina ubicada en el mismo centro (con 1.822 comensales), mientras que los 14 restantes tienen servicio de comida transportada (con 3.608 comensales).

La duración de este contrato será hasta la finalización del curso 2017-2018 (junio de 2018), con la posibilidad de una prórroga que no superará el 30 de junio de 2019. Durante este curso 2016-2017 cerca de 92.000 alumnos y alumnas usan diariamente el servicio de comedor escolar en los centros públicos de Euskadi.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **7,9 MILLONES PARA LA CONTRATACIÓN DE 79 ITINERARIOS DE TRANSPORTE ESCOLAR**

El Consejo de Gobierno ha autorizado, en su reunión de hoy, destinar 7.912.624,5 euros para la contratación del servicio de transporte escolar a los centros públicos de enseñanza dependientes del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.

En concreto, saldrán a licitación un total de 79 itinerarios de los 537 existentes actualmente en Euskadi: 37 itinerarios en Araba, 6 en Gipuzkoa y 36 Bizkaia, con cerca de 3.000 alumnos y alumnas transportados a diario. La duración de este contrato será hasta la finalización del curso 2018-2019 (junio de 2019), con la posibilidad de una prórroga para un curso escolar.

El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura licita anualmente aquellos itinerarios de transporte escolar cuya vigencia finaliza, o aquellos itinerarios de nuevas necesidades que puedan crearse.

Durante este curso 2016-2017 cerca de 24.000 alumnos y alumnas de niveles de educación no universitarios son transportados a diario a 260 centros públicos de Euskadi, a través de los servicios contratados por el Gobierno Vasco.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **CESIÓN DEL ARCHIVO DE LA EMPRESA SIGMA DE ELGOIBAR AL ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI**

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su sesión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, la firma de un convenio entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Elgoibar, para la cesión en depósito del fondo del archivo de la histórica empresa Sigma (Estarta y Ecenarro SA), a favor del Archivo Histórico de Euskadi.

El citado fondo de Sigma resulta de notable interés ya que recoge la historia desde comienzos del siglo XX de una de las empresas pioneras de Euskadi en el ámbito de la máquina herramienta, una empresa que también fue durante la postguerra y la dictadura franquista puntera a nivel estatal e internacional en la fabricación de máquinas de coser.

El fondo de archivo objeto de la cesión es muy voluminoso y completo (aproximadamente unos 4.000 cajas, cientos de planos y dibujos...), y refleja la actividad de 80 años de historia de la empresa desde sus inicios en 1914 hasta su cierre en 1995. Asimismo, se trataría del primer fondo de archivo de empresa que recibiría en donación el Archivo Histórico de Euskadi con lo que puede servir de ejemplo para que otras empresas de diversos sectores industriales del país se animen a depositar sus fondos documentales históricos en el archivo.

En la actualidad, el Ayuntamiento de Elgoibar es propietario del fondo de archivo de la empresa Sigma, y se encuentra conservado en locales propiedad de este Ayuntamiento. El Archivo Histórico de Euskadi, gestionado por el Servicio de Archivo del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, está interesado en contar entre sus fondos con este fondo de archivo que recoge una importante parte de nuestra historia industrial más reciente, para su conservación y posible consulta por personal investigador y estudioso.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **315.000 EUROS PARA PROYECTOS DE I+D+i EN EL SECTOR DE LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de educación, Política Lingüística y Cultura, la Orden que convoca para el año 2016 subvenciones destinadas a proyectos de I+D+i en el sector de las Industrias Culturales y Creativas (ICC).

Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 315.000 euros, y subvencionará, en particular, los siguientes proyectos:

- Proyectos de innovación en producto, servicio y mercado tendentes a configurar una oferta concebida para mercados globales.
- Proyectos de I+D+i de carácter tractor en fase de viabilidad o prototipado.
- Proyectos orientados a la identificación y desarrollo de líneas estratégicas de investigación de un sector.
- Proyectos de transferencia de tecnología hacia las ICC con el objetivo de configurar productos y servicios innovadores concebidos para mercados globales.
- Proyectos que promuevan la participación de las Industrias Culturales y Creativas en proyectos de I+D+i de carácter tractor relacionados con otras áreas de la estrategia de especialización inteligente de Euskadi definidas en el Plan Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020.
- Proyectos relativos al desarrollo de nuevos modelos de negocio en uno o varios sectores.

Los proyectos subvencionables deberán realizarse en 2016 y estar encuadrados en alguno de estos subsectores: arquitectura, diseño, moda, videojuegos, audiovisuales, música, artes escénicas, artes visuales, artesanía, patrimonio cultural, industrias de la lengua, edición impresa, publicidad y marketing, y gastronomía (vinculada a algunos de los anteriores subsectores). Podrán acceder a esta convocatoria las empresas establecidas en un estado miembro de la UE, y cuya actividad principal se corresponda con alguno de los subsectores mencionados, y siempre que las actividades subvencionables se desarrollen en Euskadi.

El Plan Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación ha identificado el sector de las Industrias Culturales y Creativas como una de las áreas de oportunidad de la estrategia de especialización inteligente de Euskadi relativa al desarrollo de las políticas de I+D+i en la Comunidad Autónoma. Por ello, el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura abre esta convocatoria de ayudas a proyectos de I+D+i, con el objetivo de promover proyectos de innovación en producto, servicio y mercado de las ICC.

El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días desde el día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV.



## Medio Ambiente y Política Territorial

**EL CONSEJO DE GOBIERNO DECLARA URGENTE LA OCUPACIÓN POR EL CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO BIZKAIA DE LOS BIENES AFECTADOS POR EL PROYECTO DE “ELIMINACIÓN DE LA CAPTACIÓN DE AGUA EN EL BARRIO EL ALISAL-SOPUERTA”**

El Consejo de Gobierno Vasco ha declarado urgente la ocupación por el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos concretados e individualizados en la relación obrante en el expediente instruido al efecto y necesarios para la ejecución del proyecto de “Eliminación de la captación de agua procedente de manantial en el barrio El Alisal-Sopuerta”.

**EL CONSEJO DE GOBIERNO DECLARA URGENTE LA OCUPACIÓN POR EL CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO BIZKAIA, DE LOS BIENES AFECTADOS POR EL PROYECTO DE “ELIMINACIÓN DE LA CAPTACIÓN DE AGUA DE SUSTATXA EN BERANGO”**

El Consejo de Gobierno ha declarado urgente la ocupación por el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos concretados e individualizados en la relación obrante en el expediente instruido al efecto y necesarios para la ejecución del proyecto de “Eliminación de la captación de agua procedente del manantial en el depósito de Sustatxa en Berango”.